

Espte. Kodea : 2025T0060023

ALKATETZAREN DEKRETUA

IKUSIRIK Euskara Batzordeko lehendakariaren proposamena, zeinaren bidez Landaberri Guraso Elkartearekin 2025-2026 ikasturtean elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatzea proposatzen dela, Landaberri-Garaikoetxea ikastetxean ondoko programa hauek gauzatzeagatik emango zaion subentzioa arautuko duena:

- Irria aldizkariaren harpidetzak; Irrintzi aldizkaria; Pertsonaia ezagunen bisitak; Hezitzaileek asko egin dezakete; Gu ere bertotan; Gurasoentzako euskara-eskolak; Bertso-eskola; Euskal kultura ezagutarazi; Euskaraz tinko patioan; Mintza On proiektua, Biografia linguistikoa.

Ikusirik Euskara Zerbitzuko arduradunaren 2025eko abuztuaren 11ko txostena, Landaberri Guraso elkartearekin Landaberri-Garaikoetxea ikastetxean 2025-2026 ikasturtean egitasmoak garatzeko dirulaguntza kudeatzeko hitzarmena sinatzeari buruzkoa, zeinaren bidez adierazten baita hitzarmen hori sinatzea egokia dela eta beharrezkoa den dokumentazioa zuzen dagoela.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 Lege apirilaren 2koak 21. Artikuluan ematen dizkidan atribuzioen bertutez.

EBATZI DUT:

LEHENENGOA. LANDABERRI GURASO ELKARTEAri (IFK: G20488185) 38.412,00 euroko zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea, 1.6000.48101.335.10 aurrekontu-aplikazioaren kontura; eta kopuru horren %60 (20.952 €) ordaintzea hitzarmena sinatu ondoren.

BIGARRENA. Zuzeneko emakidako hitzarmena formalizatzea, hura emateko, ordaintzeko eta justifikatzeko baldintzak arautzen dituen.

HIRUGARRENA. Hitzarmena udalaren webgunean (Gardentasuna) eta BDNSn argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 8 c) artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55 h) artikulua eta DLOren 18.3 artikulua betetzeko.

LAUGARRENA. Onuradunari jakinaraztea.

BOSGARRENA. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean aurka egin ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, egokitze jotzen den beste edozein gorabehera.

Hala ebazten eta sinatzen dut, Lasarte-Orian sinadura digitalaren datan.

